

EKINTZAILEAREN EGUNA

Gaur, apirilak 24, *Ekintzailearen eguna* omen da. Izen horrekin eratu dute behintzat egun osoko jardunaldi bat Donostiako Kursaallean. Egunkari batean irakurri dudana egitarauak dioenez, goizean osoko bilkuran izango dira hitzaldiak eta arratsaldean gai ezberdinei buruzko «tailerrak» egingo dituzte: 1. *Ekimen ekintzaileen babesak*, 2. *Esperientzia ekintzaileak (Donostialdeko ekintzaile arrakastatsuak)*, 3. *Bultza handiko sektoreak*, 4. *Gizarte ekintzailearen heziketa eta prestakuntza ekintzak*. Azken koktelaren aurretik sari ematea izango da. Bizi garen garaiotan arriskutsua dirudi gai honi buruz jarduteak, batez ere, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-k jasotzen duenez, «ekintzaile» izenak «politikan indarkeria erabiltzen duen talde bateko kidea» esan nahi badu. Nire idiolektoan hitz hori ez dago nahitaez indarkeriari lotua, eta, *Herri Gaztedi*-n jotake (galdu arte!) ibili zen zumaia batek esan didanez, 1960ko hamarkadaren azken aldera izen hori erabiltzen zuten talde horretako kideek euren buruak izendatzeko (orduko *Gazte* aldizkaria lekuko). Ekintza baketsuetara mugatuta, zeintzuk ote dira Donostialdeko arrakastatsuenak? (Bilbon antimilitaristen alde egingo nuke apustu). Sari nagusia nori emango niokeen garbi daukat: Sevillako *giraldillena* burutu zuten ekintzaileei. Honetan Anasagasti bera ere alde izango nuke.

Donostiako Udala «sozialistak» eratutako jardunaldi honek sutan jarriko ditu San Gil-eta. Ala ez? Egia esan, iragarkiaren letra txikia irakurtzen hasita, lehen hizlaria Donostiako Udaleko Ekonomia eta abarrek zinegotzia dela esaten du. Gero ADEGIko idazkari nagusia eta ELKARGIko kontseilari ordezkaria datoz, besteak beste. Arraioa! «Ekintzailearen eguna» «*Día del emprendedor*»-en itzulpena da eta «*empresario*»-ek, sobrare, «*empresario*» esan nahi du. Gauzak horrela, badut ekintzaile-enpresario sarirako hautagai bat: Venezuelako Pedro Carmona patronalburu eta 24 orduz presidentea. Kasu honetan, ordea, ez dakit zein izango den Anasagastiren iritzia.